

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 50 eta 69 urte bitarteko pertsonei zuzendutako kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa abiaraziko du datorren astelehenean

Etxabakoizko (Iruña) osasun-zentroan abiaraziko dute programa hori eta, apurka, Foru Erkidegoko gainerako osasun arloetara hedatuko da

Jueves, 11 de octubre de 2012

Nafarroako Gobernuak datorren astelehenean, hilak 15, abiaraziko du [Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Detekzio Goiztiarrerako Programa](#); Marta Vera Osasun Sailburuak prentsaurrekoan azaldu duenez, beste neurri prebentibo batzuekin batera, estrategia honen helburua da gaixotasunaren eragina eta hilkortasuna murriztea eta diagnostikoa egiten zaien erien bizi-kalitatea hobetzea.



Iruñako Etxabakoizko osasun-zentroari atxikitako herritarrak izango dira programa honen lehendabiziko onuradunak, baina, datorren urteko urtarriletik aurrera, gainerako oinarritzko osasun arloetara hedatuko da.

Kolon eta ondesteko minbizia osasun arazo garrantzitsua da, haren [eragina eta hilkortasuna handiak](#) baitira. Nafarroan, eraginari dagokionez, hirugarren tokian dago gizonezkoen artean eta bigarren tokian emakumeen artean; eta, hilkortasunari dagokionez, bigarren tokian dago gizonezkoen artean (130 hildako 2010ean) eta lehenengo tokian emakumeen artean (75 hildako 2010ean). Horrela, bularreko minbiziari lehen postu hori kendu dio; detekzio goiztiarrerako beste programa bati esker minbizi horren eragina jaitsi egin da.

Osasuneko zuzendari orokor Cristina Ibarrolarekin batera, Vera sailburuak azaldu du "lehen mailako prebentzioak" (elikadura ona, ariketa fisikoa eta beste aztura osasuntsu batzuk) neurri handi batean tasak murrizten laguntzen duen arren, detekzio goiztiarrak erakutsi du eraginkorra dela gaixotasuna kontrolatzeko.

Programa hau 50 eta 69 urte bitarteko gizon eta emakumeei zuzenduta dago (gaixotasuna izateko arrisku ertaina duen populazioa, 160.000 inguru nafar) eta programa barruan sartzen dira detekziorako prozesua, diagnostikoa baieztatuzko probak, tratamendua eta jarraipena.

Fase horiek guztiak osasun sistema publikoak finantzatu dituzte, eta programaz baliatzen diren pertsonentzako ez du inolako kosturik izango.

Osasun Publiko eta Lan Osasuneko Institutuak aukeratu dituzten arrisku egoeran dauden pertsonak. Arrisku handia suposatzen duten faktore familiarak edo pertsonalak dauzkaten pertsonak programa honetatik kanpo geratzen dira eta berriazko programetan (arrisku handiko populazioaren baheketa) sartuko dituzte; besteak beste, azkeneko bost urteotan kolonoskopiak egin zaizkienak edo minbizi mota hau izan dutenak.

Etxabakoizko kasuan, osasun-zentro horretara atxikitako 1943ko urtarrilaren 1a eta 1962ko abenduaren 31 bitartean jaiotako 1.044 pertsonetatik, 964 lagunek erabili ahal izango dute programa hau; bertakoak izan edo ez, osasun-zentro honetako medikuntzako profesional bat aukeratu dute edo bertakoak, egoiliarak, izan arren gizarte estaldurako beste sistema batean daude. Institutuak astelehenean, hilak 15, bidaliko dizkiete gonbidapen gutunak eta gutun hori jasotzen ez dutenei arren eskatzen diegu jakinaraz dezatela 848 42 34 91 telefono zenbakira deituta. Aurreikusita dagoenez, azaroaren 5a eta abenduaren 3a bitartean jasoko dira laginak.

Parte hartzeko deialdia

Programa hau Osasun Saila lantzen ari den osasun eredu berriaren 26 proiektu estrategikoetako bat da; Verak azpimarratu duenez, osasun eredu berri horrek "lehentasuna ematen dio Nafarroako herritarrei emandako zerbitzuaren kalitateari eta, guztiontzako zaila izaten ari den garai honetan, kalitate hori murriztuko ez denaren bermeari"; halaber, Verak nabarmendu du Nafarroa "bularreko minbiziaren eta kolon eta ondesteko minbiziaren prebentzioari eta detekzio goiztiarrari garrantzia handiena ematen dioten erkidegoetako bat" bezala ageri da.

Xede-populazioaren parte-hartzea elementu funtsezkoa eta erabakigarria da populazio mailako eraginaren eta hilkortasunaren murrizketarengan programak izango duen eraginari dagokionez; horregatik, sailburuak "Osasun Publikotik deia egingo zaien pertsona guztiek detekzio goiztiarrerako programa honetan parte hartzea animatu" nahi izan ditu. "Asko dute irabazteko, izan ere, minbizi mota honetan, diagnostikoa egin eta tratamendua lehenbailehen jartzea ere oso garrantzitsua da", azpimarratu du.

Baheketa-testa

Programa honen jarduteko modua honakoa da. Osasun Publiko eta Lan Osasuneko Institutuak gonbidapen gutun bat bidaliko du pertsona bakoitzaren etxera, parte-hartzea borondatezkoa, kontzientea eta informatua izan dadin beharrezko informazio guztiarekin.

Parte hartu nahi duten pertsonak euren onarpena jakinarazi beharko diote institutuari (erantzuten ez duten pertsonak berriro bidaliko zaie gonbidapena). Institutuak, bere aldetik, alde zuzenetik identifikatutako laginak jasotzeko 'kit' bat eta erabilbide liburuxka bat bidaliko die.

Behin testa egiten denean, osasun-zentrorara eraman beharko da, esandako egun eta orduetan. Langilearen aldetik harrera-kontrolik ez da behar. Baheketa-test bezala, "gorozkietan ezkutatutako odol-testa" erabiliko da. Lagin bakarra jasoko da, dieta-murrizketarik gabea.

Testa entregatu eta 15 eguneko gehienezko epearen barruan jakinaraziko dira emaitza guztiak. Emaitza negatiboak gutun bidez jakinaraziko dira (proba bi urtean behin errepikatuzko gomendio generikoarekin batera) eta positiboak, berriz, pertsonalki, Lehen Mailako Arretako medikuen bitartez; hauek baieztatuzko probak egitera bideratuko dituzte eriak (kolonoskopiak egitera). Hiru zentrotan egingo dira proba horiek: Nafarroako Ospitale-komplexuan (Iruña Eremuko positiboak); Reina Sofía Ospitalean (Tutera Eremukoak); eta García Orcoyen Ospitalean (Lizarrako Eremuko positiboak). Patologia neoplasiko gaiztoa dutenen kasuetan, eriak kontsulta espezifikotara eta zirkuitu azkarretara bideratuko dira, lehentasunez.